

23. EUSKAL DENDA

AURKEZPENA

Arbaso, Euskal Herriko Artisautza Tradizionala bizkortzeko elkarteak, Euskal Dendaren 23. edizioari ekingo dio beste urte batez, zilarrezko ezteguetatik gero eta gertuago. Beste behin ere, Durango Uriko merkatu plazak hartuko du sektorearen makro-erakusleiho hau, artisauen munduko feriarik garrantzitsuena den hau. Aurtengoan, bisitariak artisau berri asko ikusteko aukera izango dute; halaber, ezin ditugu ahaztu gure lankide izan direnak, elkartean hutsunea utzi dutenak, beraz, haiek gogoratzeko gune bat izango dugu. Abenduaren bostetik bederatzira, bisitariak 52 erakusmahaietako artisauen produkzioak izango dituzte gozagai. Gainera, erakustaldietan parte hartu ahalko dute eskuzko lanbideak barru-barrutik ezagutzeko.

“Artea loratzen” izango da hogeita hirugarren ediziorako aukeratu den leloa; keinu bat gremioei, egiten dutena artisautza baino zerbait gehiago dela irmo eusten dioten horiei, artisautza loratzen ari direnei; izan ere, euren lana artea izaterainoko mailara eroaten dute. XXI. mendeko artisauek apustua egin dute berrikuntzaren, diseinuaren, iraunkortasunaren eta antzinako tekniken alde, eta erabiltzen dituzten materialetan berrienak bilatzeari ekiten diote. Apustu pertsonal eta profesionalei esker, euretako asko benetako aitzindari bilakatu dira. Aipagarria da aurrean parte hartuko duen NUNA, Artisautzaren Sari Nazionala eman baitiote.

Bestalde, Euskal Dendak jadanik gure artean ez dauden kideak gogoratuko ditu. Aurtengoan, maitasunez gogoratuko dugu Zuriñe Agirre, artisau zeramikari zendu berria. Lur Keramikako alma matera, beraz, Euskal Dendan izango da, erakusketa bat jarriko da bere lanekin merkatu plazaren beheko gunean.

Hartara, Euskal Denda topaleku saihestezina izango da artisautza bizirik dagoen sektorea dela egiaztatzeko; horren adibidea da, Durangon, lehen aldiz parte hartuko duten artisauen kopurua, % 20a. Argi geratzen da sektorean belaunaldi berria datorrela eta erakundeen aldetiko laguntza behar duela irakite bizian dabilen gremio honek.

HELBURUAK

Beste behin ere, Euskal Denda sektorearen erakustoki onena izango da. Helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz.

Profesional hauek biziraungo badute, behar-beharrezkoa da, krisi garaian, artisauen lana bertatik bertara ikusaraztea; horixe baita Euskal Dendaren funtsa, hain zuzen ere. Izan ere, artisautza bizimodu bat da, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko modu bat da, baita garapen ekonomikoa sustatu eta, gaur egun, galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko modu bat ere. Horrela bada, ekimen honen inguruan Euskal Herriko artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira. Ezin dugu ahaztu artisautza bizimodu bat dela.

Gure artisautzak badu mugak gaindi ditzakeen kalitatea; beraz, horixe izango da helburua epe labur eta ertainera, noranzko horretan lan egin behar baitugu.

Esperientzia honi esker, bisitariak konprobatu ahalko du antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira.

EUSKAL DENDAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Euskal Dendaren arrakasta hazten joan da edizio batetik bestera. Azoka egunak zenbat, bisitariak 20.000 inguru izaten dira. Iaz sekulako arrakasta lortu zuen, eta Euskal Dendak 26.720 bisitari izan zituen.

Antolatzaileen iritziz, Euskal Dendaren moduko azoka berezi batera horrenbeste jende hurreratzea balio erantsia da; izan ere, argi gelditzen da bertaraten dena kontzienteki joaten dela gozatzeko nahiaz eta bertan parte hartzen duten artisauengandik ikasteko gogoz. Beraz, Euskal Dendara joaten den publikoa, bisitari leiala da; horregatik bada, asko zaintzen dira antolakuntzako detaile guztiak, topaketa bakoitzeko ilusioa benetakoa izan dadin.

Datozkigun egunei erreparatuta, aurtengo ediziorako aurreikuspena aurreko urteetakoaren antzekoa da, bai bisitariei, bai salmentei dagokienez. Horrek esan nahi du sektorearentzako bultzada bat dela, krisi garai hauetan.

PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK

Aurreko urteetako ildoari jarraituz, Euskal Dendak Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak izango ditu, guztira 52, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Nafarroatik etorritakoak.

Bestalde, bertan izango diren firma askok lehen aldiz parte hartuko dute, 10 profesional batuko dira aurtengora; beraz, hori ere bada berrikuntza. Alegia, artisauetatik % 20k estreinakoz parte hartuko dute azoka honetan, kutxu freskoa eta eraldatzailea emanaz.

Lurraldekako parte hartzea dela eta, Bizkaiak izango du ordezkari gehien, 25 artisau. Gipuzkoatik bederatzi etorriko dira, Arabatik zortzi eta Nafarroatik zazpi. Ipar Euskal Herriatik lapurtar bat eta Nafarroa Beherako beste bat izango dira.

Beste behin ere, Durangaldeak berebiziko lekua izango du Euskal Dendan, eskualdeko sei ordezkariak parte hartuko dute eta. Aurreko urteetan izandakoak dira denak, arrakasta handia izan baitute euren ekoizpenek; honakoak dira: Elorrioko **Anitha Mol**, paperezko bitxiak egiten ditu; **Rosa Etxabe**, zeramikari eta grabatzailea. **Restaurarte**, zaharberritze tailerra, 2010eko stand onena sariaren irabazlea; **Eneko Unzalu** bitxigile durangarra. **Felix Larrañaga** egur taillagin berriztarra ere etorriko da Durangora, baita **Gorakat** gazte elorriarra ere, bere produktu berriekin. Azken biek estreinakoz hartu zuten parte iazko edizioan.

Sektorekako sailkapena egiten badugu, aurten, ehungintzak izango ditu ekoizle gehien, 9; bitxigintzak zortzi tailer. Halaber, aipatzekoa da nekazaritzako elikagaien sektorea, bere lekua egin baitu Euskal Dendan: sei aditu ekarriko ditugu.

NOBEDADEAK

ARABA:

Arabak ordezkari berriak bidaliko ditu:

Susana Corbella Zeramika, zeramika artistikoa, buztina inspirazioa iturri. Amurrio.

Nuna, Artisautzaren Sari Nazionala eskuratu du feltro nunoaz, Japonen jatorria duen artileaz, egiten duen lanagatik. Domaikia.

Irantzu-tzu, ehungintzako lanak aukeran bai umeentzat bai etxekoa, dena patchwork eginda. Vitoria-Gasteiz.

BIZKAIA:

Bizkaitik bost artisau-enpresa berri izango ditugu Euskal Dendan:

Ixi wood, moda eta diseinu enpresa, ausarta eta dibertigarria, osagarri nobleekin, egurra baita lanaren ardatza. Gizaburuaga.

Ana Yabar, kristala lantzen du ikuspegi erromantiko batetik. Ibilbide luzea du, ñabarduretan aberatsa. Bilbo.

Jabonarte, 2006ko abenduan sortu zen. Diseinua eta xaboia egiteko artea uztartzen ditu. Erandio.

KB sisters, firma gazte honek eskuz egiten ditu osagarriak, bakarrak dira, desberdinak, originalak eta estilo propioa dute.

Matxi, ibilbide luzeko familia. Osagarriak eta serie mugatuko moda da euren proposamena; eskuz egindakoak banan-banan. Derio.

NAFARROA:

Nafarroatik lehenengoz iritsiko dira:

Artisai, kakorraz-lanak egiten dituen artisau enpresa familiarra.

NAFARROA BEHERA:

Nafarroa Beheratik nekazaritzako elikagaien aitzindaria izango dugu:

Arnabar, ahateak hazi eta foiea egiten duen artisau enpresa. Osses.

2018ko JARDUERAK

Euskal Dendak beti hartzen ditu aintzakotzat bisitariak, artisautza tradizionalen murgiltzeko asmoarekin. Aurtengo 23. edizioan, bada, are gehiago. Asmoa baita ekoizleak bertatik bertara ezagutzeaz gain, antzinako lanbideak ezagutaraztea eta horietan sakontzea. Horregatik bada, bertan, zuzeneko erakustaldiak egingo dituzte. Beharbada, tailerrak eta erakustaldiak dira azoka hau Euskal Herrian egiten diren etatik berezia egiten dutenak. Beraz, aurtengo ere, bisitaria ikuslea izateaz gain, pieza bat sortzeko prozesuan parte hartu ahalko du.

Halaber, Euskal Dendak dirauen bitartean zozketak eta hainbat zorpresak izango ditu bisitariak.

ETENGABEKO ERAKUSTALDIA

Bigarren urtez jarraian, merkatu plazako beheko aldea, omenaldiak egiteko gune bilakatuko da. Aurtengo, Zuriñe Agirre hil berri den artisau gasteiztarraren lanak izango dira ikusgai; izan ere, asmoa dugu omenaldia eta agur beroa egiteko.

Figura bitxiak egiten zituen Lur Keramikaren alma mater honek, euskal pertsonaia tipikoak irudikatzen dituztenak eta Gabonetako jaiotzan ipintzekoak, esaterako Olentzero eta Mari Domingi. Eraikitzen zituen eszenak xehetasunez beteak ziren, eta bere eskarapatea izan zitekeen Andre Maria Zuriaren plaza bete-beterik txupinazo egunean, Zeledon bertan zela, edo Iruñako Udaletxe plaza uztailearen 7an.

Hala ere, Zuriñe Agirreren imajinazioa eta maisutasuna aipatutakoa baino handiagoa zen; izan ere, Vitoria-Gasteizen, bere hirian, kirol gertakizunen bat izaten zenean, horretara bideratzen zuen bere sormena, eta buztinezko kirolariak diseinatzen zituen.

Gasteizko alde zaharreko Txikita kaleko bere lokaletik urteetan Euskal Dendaren ardura izan zuen; orain ohorezko agurra egin nahi diogu.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta

FITXA TEKNIKOA

EDIZIOA: 23.a

DATA: abenduaren 5etik 9ra

ORDUTEGIA: Goiza, 11:00 - 14:30
Arratsaldea, 16:30 - 21:00.
Igandea 9, 20:00ak arte.

INAUGURAZIO OFIZIALA: Asteazkena 5, 12:00etan

ERAKUSTOKIAK: 52

LURRALDEKA

Araba 9
Bizkaia 25
Durangaldea 6
Gipuzkoa 9
Lapurdi 1
Nafarroa 7
Nafarroa Behera 1

SEKTOREKA

Nekazaritzako elikagaiak 6
Beira 3
Zura 5
Larrua 4
Ehungintza 9
Zeramika 6
Arte 1
Bestelakoa 2
Euskal Kirola 1
Kosmetika 4
Bitxigintza 9
Imitaziozko bitxigintza 1
Zapatak 1
Lore lehorrak 1

LELOA: “Artea loratzen”

LEKUA: Durangoko udal merkatu plaza.
1.600 m²

LEHIAKETAK: Artisau despistatua
Publikoren ustez, erakustokirik politena.
Zozketa: Erosketarako baleak

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia

BABESLEAK: Durangoko Udala
Durangoko Turismoa
DEIA
GARA
ONDA VASCA
ANBOTO

INTERNETEKO HEDAPENA: www.euskaldenda.info
euskaldenda.blogspot.com/
www.arbaso.com

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA: Lorea Madina
prentsa@arbaso.com
607 86 32 24